



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Victoria Sendon ◉ Filosofo feminista

Emakumeen aurkako indarkeriaren molde ikusezinena da biolentzia sinbolikoa, Sendonen arabera, andreak menderatzeko arau inplizituak sortzen baititu; ordena hori aldatu beharra nabarmendu du.

«Patriarkatuak bere burua samurtu nahi du, hain itxura arriskutsua ez izateko»

Maite Asensio Bilbo

Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa zer den azaldu zuen Victoria Sendon filosofo eta idazleak atzo Bilbon, genero indarkeriaren ikusezintasunari buruzko jardunaldietan. Euskalduna jau-regiko aretoan ikusitakoa jarri zuen adibide: «Jardunaldiotan ez zaigu inor mehatxuka etorri, baina partaideen %99 andreak izanda, hitza hartu duten gehienak gizonak izan dira».

Zer da indarkeria sinbolikoa?

Andreak menderatzeko modu bat da, naturala dirudiena, baina erabat arbitrarioa dena. Ez da begien bistakoa, baina arau inplizitu batzuk eratzen ditu, emakumeentzat eta gizonentzat desberdinak direnak: egoera edo kontzeptu batek oso bestelako itzulpena du bata eta bestearengan. Adibidez, gizon batek zer bait irmoki esatea nortasun handiaren seinale da, eta, aldiz, andre batek halakorik egiten badu, histerikoa da. Hori mendekotasun sinbolikoa da; emakume guztiak jasaten dugu, baina askotan ez gara konturatzeko, inkontzientean dagoelako, izaeran bertan.

Emakume eta gizon nortasunen eraikuntzarekin lotuta dago, beraz.

Bai, eratzten den iruditeriarekin lotuta. Pentsatzen dugu emakume islamiarrak erreprimetuta daudela, agindu esplizitu baten ondorioz estali behar direlako, baina Mendebaldeko gizartean, agindu inplizitu batek adierazten

«Historikoki, mito guztiak balioa kendu diete andreei; beraz, ez dugu autoritaterik»

«Errora jotzen ez badugu, erradikalak ez bagara, indarkeria ez dugu konponduko»

du emakumeak desestali egin behar direla. Onak eta maitagarriak izateko agindua dugu emakumeok, besteen gustukoak izateko, besteak zerbitzatzeko. Mutil bat jaiotzen denean ahots batek esaten dio: «Izan zaitez nahi duzun bezalakoa, izan zuretzat»; neska bati, aldiz: «Izan besteentzat». Hortaz, eredu hori auzitan jarri gabe, emakumeei eta gizon

ematen zaizkien ezaugarri sinbolikoak kontuan eduki gabe, berdintasun politikak egiteak ez du inolako zentzurik.

Feminismoaren erradikalatasuna aldarrikatzen ari zara...

Mugimendu feminista, definizioz, erradikala da, errora doalako. Emakumeen aurkako indarkeriaz jardutean, ezin dugu esan gizonak agresiboak direla edo kontrola galtzen dutela; tratatu txar fisikoan abagunera heldu aurretik, emakumeari balioa kendu diote. Izatez, historikoki, mito guztiak balioa kendu diete andreei; beraz, emakumeok ez dugu autoritaterik, besteak eman behar ditugulako. Eta norbaiti begirunerik ez diozunean, edozein modura trata dezakezu.

Indarkeria sinbolikoak agerian uzten al du emakumeen aurkako biolentziaren izaera estrukturala?

Bai, egiturazkoa da, sistematikoa, eta errora jotzen ez badugu, erradikalak ez bagara, ez dugu konponduko. Bestelako ordena sinbolikoa behar dugu.

Zein alde dago Iparraldeko eta Hegoaldeko herrietan bizi diren andreen aurkako indarkeria sinbolikoen artean?

Afganistango emakume batek etxetik alde egin zuen, senarrak jotzen zuelako; talibaneak aurkitu zuten, etxera itzularazi, eta senarrak sudurra eta belarriak moztu zizkion. Hegoaldean indarkeria esplizitua da, ordena sinbolikoa hori ez dutelako auzitan jartzen: gizonak emakumeak mendean hartzea naturala da. Iparraldean pauso hori emanda dago; beraz, indarkeria inplizitu bihurtu da, ikusezin. Horregatik daude hainbeste andre depresioarekin, antsietatearekin... Andreak halako ezinegon sakon bat sentitzen dute ordena sinbolikoa batean bizi-tzeagatik: hasieratik zara gutxiago, ez duzu autoritaterik, funtsean ez zaituzte errespetatzen, eta, gehienez, onartu egingo zaituzte.

Berdintasunaren irudi faltsuaren izenean, genero bakoitza bestearen rol okerrenak barneratzen ari al da?

Bai, rola alderantzikatzen ari dira. Patriarkatuak samurtu egin nahi du bere burua, hain itxura arriskutsua ez izateko. Orduan, orain gizon batzuk femenoagoak dira, irudia gehiago zaintzen dute, eta, era berean, emakumeak gizonen eskema, gustu eta sexualitatearekin egokitzen ari dira. Geratzen zaigun azken aukera da ordena sinbolikoa aldatzea, eta orduan ez genduko berdintasunaz hitz egingo, askatasunaz baizik.

Azken urteotan urratsak egin dira bikotekide edo bikotekide ohiek andreei eginiko tratu txarrik ikusarazteko. Ondo ikusarazi al da?

Ez, nire ustez, ez delako errora jo: tratatu txarren atzean dagoen ordena sinbolikoa hori ez da agerian utzi, eta, gainera, administrazioek biktimitasunetik jorratu dute gaia. Gizarte patriarkalak hiru oinarri ditu: naturaren sunsiketa, guda erabiltzea gatazkak konpontzeko tresna gisara eta emakumeen morrontza. Andreak oso mundu arrotzean bizi gara: baloratzen diren gauzak gizonak egiten dituzte, eta emakumeen lana ez da kontuan hartzen, nahiz eta horri esker ari diren aurrera egiten herrialde pobreak.

Prostituzioan diharduen andre bati eraso egitea egotzita, gizon bat atxilotu dute

Genero indarkeriaren biktimen laguntza hobetzeko protokoloa sinatu dute Bilboko Udalak eta Jaurlaritzak

Erredakzioa Bilbo

Bilboko udaltzainek 27 urteko gizon bat atxilotu zuten herenegun, prostituzioan diharduen emakume bati eraso egitea egotzita. Iragan goizalde batean gertatu zen ustezko eraso. Gazteak 28 urteko andreaken zerbitzuak kontratatu zituen, tarifa adostu ostean. Emakumeak ezarritako salaketaren arabera, sexu harremanak izaten ari ziren unean, ezarritako tarifaz eztabaidatzen hasi ziren. Emakumeak bere zerbitzuei amaiera jartzea erabaki zuen orduan, eta alde egiteko asmoa agertu zuen. Bezeroak, baina, indarkeriaz erantzun zion, eta zenbait alditan jo zuen emakumea aurpegian eta bularrean. Une horretan, auto bat agertu zen, eta gizonak alde egin zuen. Emakumea Basurtuko erietxera eraman behar izan zuten, jasotako kolpeen ondorioz.

Bestalde, Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak protokolo bat izenpetu dute, erakundeen koordinazioa eta genero indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza zerbitzuak hobetzeko. Udalaren arabera, Bilboko ia 22.000 emakume egongo lirarteke une hauetan genero indarkeria kasuren bat jasaten euren familia esparruan. Hiru emakumetatik bakarra da horren jakitun.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

IRAGARKIA

2010eko urriaren 1ean **Etxebideko** Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskarien **altak, bajak, artxibatzeak, ukoak, zuzentzeak eta izapideak betetzea** jakinaraziko dira lurralde ordezkariek ebazpenen bidez. Ebazpen horiek Lurralde Ordezkaritzetako iragarki tauletan argitaratuko dira.

Argitaratzeko lekua:

ZUZENEAN Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak.
Arabian: Ramiro de Maeztu, 10. Vitoria-Gasteiz.
Bizkaian: Gran Vía, 85. Bilbo.
Gipuzkoan: Andia, 13. Donostia-San Sebastián.

Ordutegia:

– Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00ak bitartean.

Errekurtsoak aurkezteko epea: 2010/11/02ra arte.

Eskatutako agiriak aurkezteko epea: 2010/10/20a arte.

www.etxebide.info

Iñaki Arriola López
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua

ETXEBIDE
HERRI LAN ETXEBIZITZA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES